



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko apirilaren 13an

29 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamena. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- “Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Errioxako lurraldean hondakin toxiko eta arriskutsuetarako zabortege bat egiteko proiektuak duen kokapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Etxebizitzak eskuratzeko laguntzen arautegiaren aldaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoetarako dirulaguntzak” aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- “Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaren hitzarmenerako proiektuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Batxilergoari eta prestakuntza zikloei dagokien hezkuntza-eskaintzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Corellan garbitegi industrial bat jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- N-232 errepideko Castejón-Tutera zatiaren trafikoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Kuota handitzeak Nafarroako Abeltzaintzarako ekarriko dituen ondorioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkarateak egindako eskaerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- DBHrako hitzartutako zentroen gaurko egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jardueri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Unibertsitate prestakuntzaren gutzitako gastuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat NA-160 eskualde errepidean, Tutera-Cintruénigo tartean. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- “Endekaturiko inguruak leheneratzea eta ingurugiro eraginak zuzentzea”, 90037-1 lerroa, aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamena**

*HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamenari buruz eman duen irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proposamen hori 1998ko abenduaren 16ko 95 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran boto partikular hau defendatzen ahalko da:

Boto partikularra 4. artikuluari, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

Iruñean, 1999ko apirilaren 8an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**IRIZPENA**

**Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA (KENDUTA)

**1. artikulua.** Beste idazati bat erantsi da 2. artikuluko b) eta c) idazatien artean; honela geratuko da:

“b) bis - Irrati eta Telebistako Nafarroarako berariazko programazioaren parrilla jarraitu eta ebaluatzea; jarraipen eta ebaluazio horiek kasuan kasuko txostenetan adieraziko dira.”

**2. artikulua.** (KENDUTA)

**3. artikulua.** (KENDUTA)

**4. artikulua.** 4. artikulua aldatzen da; honela geratuko da:

“4. artikulua. 1. Kontseilu Aholku-emailea gehienez ere hamaika kidek osatuko dute, Parlamentuko taldeek Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran dauzkaten eserlekuen proportzionaltasuna gordez. Parlamentuko talde guztiek kide bat izanen dute gutxienez. Nafarroako Gobernuako Lehendakariak izendatuko ditu, Parlamentuko taldeek proposatuta.

2. Kontseilu Aholku-emailearen agintaldiak Nafarroako Parlamentuaren legegintzaldiak beste iraunen du. Legegintzaldia bukatzen denean, Kontseilu Aholku-emaileak jardunean jarraituko du bederatzi kide berriak beren karguez jabetu arte.

3. Kontseilu Aholku-emaileko kideek hauetako edozein kasutan utziko dute kargua:

- a) Haiek eskatuta.
- b) Bateriaezintasun kasuan.
- c) Heriotzagatik.

4. Hutsunerik geratzen bada Parlamentuko talde batek proposatutako kideen artean, hutsune hori Parlamentuko talde horrexek proposatuta beteko da kasuan kasuko legegintzaldia bukatu arte, betiere hutsunea deklaratu eta hilabeteko epean, gehienez ere.

5. Kontseilu Aholku-emaileko kide izatea bateraezina izanen da harreman zuzena edo zeharkakoa izatearekin publizitate-enpresekin, programa filmatuak edo magnetoskopioan erregistratutakoak edo irrati programak produzitzen dituzten enpresekin, diskoetxeekin edo RTVERi edo bere sozietateei materiala edo programak saldu edo haietaz hornitzen dizkion edozein entitaterekin. Bateraezina izanen da, halaber, RTVERekin lan-

harreman aktiboa izatearekin eta ente horri edozein zerbitzu egitearekin.

6. Kontseilukideen bateraezintasuna Nafarroako Parlamentuak aztertu eta deklaratu du.”

**5. artikulua.** 10. artikulua aldatu da; honela geratuko da:

“10.1 artikulua. Nafarroako Gobernuak Kontseilu Aholku-emailearen esku jarriko ditu haren helburuak betetzeko behar diren giza-baliabideak eta baliabide materialak. Kontseilu Aholku-emailearen funtzionamendu-gastuak ez dira finantziaturiko RTVEren aurrekontuaren kargura, Nafarroako Aurrekontu Nagusien kargura baizik.

2. Giza-baliabideak ere Kontseiluaren esku jarriko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio lanpostuen kargura.

3. Kontseilua behar diren baliabide materialez hornitzeko, Nafarroako gastuen aurrekontuan behar den kontusaila jarriko da; berariazko programa bat sortuko da.”

### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileak kokapen fisikoa izanen du RTVEk Nafarroan duen Lurralde Zentroan; izan ere, zentro hori Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoa da.

### **Xedapen Indargabetzailea**

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

**Bigarrena.** Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileko Erregelamendua hiru hilabeteko epean aztertuko da foru lege honetan ezarritakora egokitzeke.

**Hirugarrena.** (KENDUTA)

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **“Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Lurzorua eskuratzeko erabilitako zenbatekoa, metro karratuen zerrenda eta baita eskuratu-tako lurzatiaren kokalekuak; halaber jarduerarik aurreikusirik badagoen eta egotekotan, noizko.

Jarraian zerrendatzen diren eskuraturiko lurzatiak erreferentziarik gabekoak dira, eraikigarritasunaren arabera erosten baitira, eta alderdi hori, zenbait kasutan, ez dago zehazterik, dagozkion planeamendu-tresnak idatziz jartzen ari direlako.

Astibia, S.A., Astibia-Irure, S.A. eta Electroaceros, S.A. delako enpresen lurzoru-eskurapenak, instalazioak, eskubideak eta kalteordainak, Mendillorri: 619.999.670 pta.

San Jorgeko A unitateko 7. lurzattia, Iruña: 21.813.881 pta.

Arrotxapeako 6.A. poligonoko 8.D. lurzorua, Iruña: 10.307.799 pta.

Arrotxapeako Plan Partzialaren 6A poligonoko 8CC lurzatiaren %11.64, Iruña: 792.851 pta.

Arrotxapeako Plan Partzialaren 2A poligonoko 4.1 lurzattia: 55.604.916 pta.

Arrotxapeako 2A poligonoko 4.2. lurzattia: 19.876.557 pta.

Aurreikusita dago lurzati horiek guztiak 1998ko lurzoru-lehiaketan eskaintzea.

2.- Kontusail honen kargura eginiko beste jarduera batzuk, horrelakorik baldin badago.

Mendillorri, Ochoa Lacar nabe zaharra eraistea: 9.714.791 pta.

Aurreko eraispnaren ordainsariak: 898.987 pta.

5.1, 5.2, 5.3, 5.4, 8.1, 8.2 eta 8.3 lurzatiak urbanizatzeko gastuak, San Gorgeko E unitatekoak: 53.676.613 pta.

Noaingo B.3 unitatea urbanizatzeko gastuak: 8.224.035 pta.

“Alemanes” Plan Partzialaren 2.11 lurzattia urbanizatzeko gastuak, Iruña: 4.880.938 pta.

San Jorge E unitateko 1.1, 1.2, 4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6, 4.A, 5.1, 5.2, 5.3 eta 8.1 lurzatiak urbanizatzeko gastuak: 169.318.093 pta.

Tuterako 6b. banaketa eremuko UE-17 unitatea urbanizatzeko gastuak: 21.196.333 pta.

Tuterako UE-16 unitatea urbanizatzeko gastuak: 3.069.302 pta.

P-7 industrialdeko 4B-2 lurzattia urbanizatzeko gastuak, Arrotxapea-Tudela: 13.256.059 pta.

Mendillorriko 4. fasea aurrez planeatu eta urbanizatzeko gastuak: 4.640.000 pta.

Tuterako 6b. banaketa eremuko UE-16 unitatea urbanizatzeko gastuak: 990.891 pta.

San Jorge-Iruñeko A unitateko 7. lurzattia urbanizatzeko gastuak: 56.913.326 pta.

Arrotxapeako Plan Partzialaren 6A poligonoko 8.0 lurzattia urbanizatzeko gastuak: 21.589.340 pta.

8CC lurzatiaren %11.64ari dagokion urbanizatzegatik saldoa, Arrotxapeako P6A poligonoan: 987.176 pta.

Arrotxapeako 2-A poligonoko 4.1 lurzattia urbanizatzeko gastuak: 175.209.801 pta.

Arrotxapeako 2-A poligonoko 4.2 lurzattia urbanizatzeko gastuak: 66.305.568 pta.

3.- Exekutututakoaren guztizkoa eta kontusailaren exekuzio maila 1997ko abenduaren 31an.

1.339.266.927 pta. exekutatu dira; hau da, hasierako kontusailaren 1.200.000.000 pezetei dagokienez, %111.60.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Errioxako lurraldean hondakin toxiko eta arriskutsuetarako zabortegei bat egiteko proiektuak duen kokapenari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Errioxako lurraldean hondakin toxiko eta arriskutsuetarako zabortegei bat egiteko proiektuak duen kokapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Errioxako lurraldean, Galilea dermionan, Nafarroatik gertu, hondakin toxiko eta arriskutsuetarako zabortegei bat egiteko proiektuak duen kokapenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer urrats eman duen Nafarroako Gobernu-ko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipaturiko hondakin-degi-proiektuaren egoerari buruzko informazio osoa eduki ahal izateko.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aldian behingo harremanak izan ditu Errioxako Gobernu-ko Ingurugiro

Kalitateko Zuzendaritza Nagusiarekin, zehatz-mehatz jakiteko zein egoeratan dagoen Galilea dermionan jarri nahi duten Errioxako Industria Hondakinen Segurtasun Biltegia eta Transferentzia Zentrua delako proiektuaren tramitazioa.

2. Zein den hondakin-degi -proiektuaren egun-egoera, zein fasetan aurkitzen den, epeak eta abar. Eta Ingurugiro Departamentuak Nafarroaren aldetik jarduketaren bati ekitea beharrezkotzat jotzen ote duen.

Joan den urtarrilaren 13an, Ingurugiro Batzordearen 1997ko abenduaren 18ko Hitzarmena argitara atera zen Errioxako Aldizkari Ofizialean; beraz, aipaturiko proiektuaren gaineko Ingurugiro-eraginari buruzko deklarazioa jendaurrean eman da aditzera.

Ingurugiro-eraginari buruzko deklarazio horretan, Ingurugiro-Batzordeak (ingurugiro-ondorioetarako soil-soilik) proiektua garatzearen aldeko informazioa ematea erabakitzen du, baldin eta deklarazioan bertan xedatzen diren baldintzak betetzen badira.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak mozio bat aurkeztu zuen jendaurreko informazio-fasean, eta beste interesatu batzuek aurkeztutako mozioekin batera, Ingurugiro Batzordeak hura kontuan hartu eta Ingurugiro-eraginari buruzko hasierako azterlana burutzeko agindu zuen.

Geroago, hautaturiko kokapenetik hurbileko herrien artean sortutako aurkakotasun gogorra ikusita, Errioxako Gobernuak proiektuaren tramitazioa bertan behera utzi eta enpresa esleipendunarekin zeukan kontratua deuseztatzea erabaki zuen.

Proiektuak bertan behera jarraitzen ez duen berririk heltzen ez den artean, ez da beharrezkotzat jotzen jarduketarik bati ere ekitea Ingurugiro,

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aldetik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Aranguren eta Egues artean proiektatu den hiri bioklimatikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 24ko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Aranguren eta Egues udallerrien artean eraikitzea proiektatu den hiri bioklimatikoari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer azterlan egin ditu Nafarroako Gobernuak hiri bioklimatikoari buruz? Horietatik Lurralde Antolamendu Departamentuak eginikoa eduki nahi da.

Gaur arte azterlan bakarra egin da, "Zolinako Hiri Bioklimatiko" izenekoa, EMMA S.L. enpresak eginikoa, EHNk hala eskatuta.

Une hauetan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua azterlanean eginiko planteamenduak kontrastatu eta egiaztatzea eta azterlanaren beraren bideragarritasuna egiaztatzea ahalbidetuko duen xehetasun-azterlanaren garatzen ari da.

2. Zein izanen da hiri bioklimatikoaren etorkizun administratiboa?

Une hauetan Toki Administrazioako Departamentua hiri bioklimatikoari soluziobide administratiboa ematea ahalbidetuko duen azterlan egiten ari da, Aranguren eta Eguesko Udalekin batera. Aurretiazko azterlan bat ere bada "Zolinako hiri bioklimatikoaren eredu administratiboko alternatibaren azterketa" izenekoa.

3. Ba al dator bat hiri bioklimatikoaren Iruñerriko eskualde-arauekin?

Iruñerriko Eskualdeko Hirigintza Arauen proiektuak Zolinako hiri bioklimatikoaren interbentzioaren dermioa aukera-eremutat hartzen du; kontzeptu hau beren ezaugarrien edo baldintza topologiko bereziaren arabera aukera funtzional desberdinak eskaintzen dituzten lurralde-esparru desberdinei aplikatzen zaie.

Lurralde honetako ezaugarri topografikoak eta ingurugiro-, kokapen- eta jabetza-ezaugarriek Arauen proiektuan aukera-eremu gisa barne hartzea aholkatu dute. Hiri bioklimatikoaren ekimenik ez balego, burutuko ez balitz, edo beste kokapenik aurkituko ez balitz ere, aukera-eremua identifikazioa izaten jarraituko luke.

4. Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak, edo bere edozein zerbitzu teknikok, hiri bioklimatikoaren proiektatua dagoen kokalekuaz gain, beste lekuren batean kokatzea? Horrela bada, non?

Hiri bioklimatikoaren bideragarritasuna aztertzen ari deneko lursailak abantaila ugari ditu eta ezin egokiagoa da horrelako operazio bati aurre egiteko. Horien artean, eraikina kokatu eta orientatzeko ezin hobea den malda gutxiko hegoalde-



hegala duen urmaelaren inguruan egoteaz gain, Iruñetik hurbil dagoela aipatu behar da. Hortaz gain, Nafarroako Gobernuak da lursailen jabea. Aldeko baldintza horiek guztiak kontuan hartuta pentsatu zen horrelako jarduketara bat espazio horretan egiteko aukeran, eta ez alderantziz, hau da, hiri bioklimatikoa kokatzeko lekuren bat bilatzea, alegia. Horrenbestez, eta jarraitutako prozesua kontuan izanda, ez da egokitzen jo beste

kokapenik bilatzea, izan ere Zolinako ingurunea baita egokia horrelako operazio baterako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Etxebizitzak eskuratzeko laguntzen arautegiaren aldaketari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Etxebizitzak eskuratzeko laguntzen arautegiaren aldaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 24ko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du etxebizitzak eskuratzeko laguntzak aldatzen dituen apirilaren 14ko 100/1997 Foru Aginduko 10. artikuluari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Uste al du Nafarroako Gobernuak egokia dela arautegia aldatzea egoera hori aintzat hartu ahal izateko, eta tratamendu bat ezartzeko, kasuan kasurako ezarri diren dirulaguntzak eskuratzeko modua ematen duena?

Nafarroako Gobernuak etxebizitzak eskuratzeko, alokatzen edo birgaitzen dituztenei ematen dizkie laguntzak. 4.000 familia-unitatetik gora jasotzen dituzte urtero laguntza hauek. Hortaz gain, urtero 3.000ren bat mailegu subsidiatu berraztertzen dira.

Horrenbestez, urtero 7.000ren bat familien zirkunstantzia sozialak eta ekonomikoak aztertzen dira, banan-banan. Departamentu honen betebe-

harra laguntzak gehien behar dituztenei ematea da, eta beraz, gerta daitezkeen iruzurrak saihesteko, 7.000 familia horietako bakoitzaren zirkunstantziak hobekien egiaztatzen duen dokumentazioa zorrotz aztertzen da.

Eskatzen den familiaren dirusarrera ekonomikoaren egiaztagiria pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpena da, eta honen zergaoinarria erabiltzen da laguntzak kalkulatzeko, arautegiak ezartzen duen bezala kokapen geografikoko zenbait zirkunstantzia, familiaren osaketa, adina eta minusbalioetasunak kontuan hartuta.

Erosi, alokatu edo birgaitu beharreko etxebizitza eskuratzeko laguntzak lehen aldiz eskatzen direnean, eskuratzeko kontratuaren ikus-onespenean edo, hala badagokio, kalifikazio-zedulan, kasu bakoitzean izanen diren laguntza ekonomiko zehatzak azaltzen dira, eta horrek konfidantza eta segurtasun juridikoa ematen die interesatuei.

Departamentu honek badaki PFEZren aitorpenaren azken ezarpen-aldiaren –aitorpena aurkezteko epea amaitu denean eta aitorpenak berak ikus-onespenean jasota dauden laguntzak zehazten dituela kontuan izanda– eta ikus-onespena bera eskatzen den unearan artean onuradunen ahalmen ekonomikoa onerako edo txarrerako alda dezaketen zirkunstantziak sortu ahal izan direla. Gaur egungo sistemak kontratuaren ikus-onespeneko izapidean edo behin-behineko kalifikazioan finkatutako laguntzen ematea egiaztatzen du, eta ukitutakoak adierazitako dirulaguntza zehatza eskueran duela, maileguaren subsidiazioa bost urtez luzatuko zaiola eta ondoren bere dirusararren geroko bilakaeraren arabera berraztertuko dela daki.



Kasu zehatz honi dagokionez –hau da, PFEZ-ren aitopenerari dagokion azken ezarpen-aldian (aitopena aurkezteko epea amaitu denean) eskuratu beharreko etxebizitzaren salneurriaren zazpi-eren bat baino dirusarrerara txikiagoak edo batere dirusarrerarik ez dituzten pertsonak eta ikus-onespenerako etxebizitza eskuratzeko kontratua aurkeztu aurretik enplegua aurkitu eta, horrenbestez, erosteko ahalmena hobetu duten pertsonen kasuan– ondokoa adierazi behar da:

– Zirkunstantzia ekonomikoak ebaluatzeko dokumenturik egokiena PFEZ dela uste da, beste-lako dokumentuek ez baitute haren hedadurarik eta iruzurrerako bidea zabal dezakete.

– Gobernuak alokatzeko etxebizitzarako esku-ragarritasuna sustatzen du, batez ere erregimen bereziko alokairuaren eta gazte-alo-kairuaren figu-ren bidez, besteak beste lehen enplegua lortzen dutenek beren jabetzako etxebizitza erostearen aurretiazko urrats gisa alokairuan bizitzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, adierazitako zirkunstantzian aurki-tzen diren pertsonak etekin ekonomiko handiagoa ere atera dezakete, izan ere Gobernuak etxebizi-tza erostearen alde aurreko aurrezteko aztura sustatzearen aldeko apustua egiten baitu, bi urte-ko baino antzintasun handiagoa duten etxebizi-tzarako aurrezki-kontuen titularrak direnei dago-kien dirulaguntza nabarmen handituz.

Adierazitakoaren arabera, Nafarroako Gober-nuak galdera eragin duen egoera kontuan hartzen du, baina laguntzak emateko prozeduren zorroz-tasun eta seriotasuna kontuan izanda eta alokai-ruko etxebizitzak eskuratzeko erregimena susta-tzearekin koherentzia gordez, etxebizitzak eskuratzeko laguntzen gaur egungo zehaztapen-sistema egokia delakoan dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **“Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoetarako dirulaguntzak” aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Par-lamentario jaunak “Hirigune historikoak birgaitze-ko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoe-tarako dirulaguntzak” aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruz egindako galderaren eran-tzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Hirigune historikoak birgaitzeko eta horien leheneratzea finantzatzeko bulegoetarako

dirulaguntzak” aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Anto-lamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontusailaren erabileraren banakatzea, gaur egungo sei zentroetan Birgaitze Bulegoek izan dituzten gastu finkoen arabera: soldatak eta bestelako gastuak.

ORVE Iruñeko Udala	21.013.731
ORVE Iruñerriko Mankomunitatea	11.500.000
ORVE Sakanako Mankomunitatea	6.242.602
ORVE Montejurrako Mankomunitatea	12.564.883
ORVE Tafalla aldea	12.564.883
ORVE Tafalla aldea - 1996ko gastua	283.918
ORVE Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea	<u>11.999.533</u>
	79.169.550

2.- Hirigune Historikoen leheneratze zehatzak diruz laguntzeko esleituriko kopuruak, eginikoaren berri xehetasunez emanez.

Ikerlana	
Iruñeko harresiak	5.400.000 pta.
Ikerlana	
Iruñeko Hirigune Historikoa	16.200.000 pta.
	21.600.000 pta.

3.- Aurrekontu-kontusailaren betetze-maila 1997ko abenduaren 31n.

1997ko kontusailaren exekuzioa, ondoko taulan adierazita dago:

GASTADO	PRESUPUESTADO	% EJECUCION
100.769.550	230.000.000 pta.	%43,81

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 20an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## “Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaz hitzarmenerako proiektuei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaz hitzarmenerako proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Etxebizitza eta birgaitzearen arloetako aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- “Etxebizitzaren arloko jarduketetarako Dirulaguntzak” izeneko aurrekontu-kontusailari dagokienez, zein izan den exekutaturikoaren banakatzea.

1997an, etxebizitzak erosteko dirulaguntzak guztira 2.641.973.851 pta.koak izan dira, honela banakatuta:

Erosi dute	Zenbatekoa (Pta.)
B.O.E. Araubide berezia	1.488.962.416
B.O.E. Araubide orokorra	992.478.666
Etxebizitza askea, tasaturiko prezioan	160.532.769
Guztira	2.641.973.851

Aurrekontu-lerroaren exekuzio osoa azaldurik dago erantzun honen amaieran.

2.- Birgaitzeari dagokionean, exekutaturikoaren banakatzea zein den.

Iaz, etxea zaharberritu duten pertsonari emandako dirulaguntzak guztira 816.838.023 pta.koak izan ziren. Kopuru horri 1.695.998 pta. gehitu behar zaizkio, eraisketei dirulaguntza-kontzeptupean.

3.- Alokairuei dagokionean exekutaturikoaren banakatzea zein den eta maizter-dirulaguntzako jarduketetan erabilitako kontusailaren xehetasunak honako hauetan: B.O.E.-Araubide Berezia, B.O.E.-Araubide Orokorra, -Bestelakoak.

Gai honi dagokionez, iaz alokairu-kontzeptu gisan emandako dirulaguntzak 764.480.605 pta.koak izan direla argitu behar da. Gogoan ere izan behar da, ezen, maizterren errentarako ematen diren dirulaguntza bakarrak, babes ofizialeko etxebizitzetara (Araubide Berezia) dagozkiela. Kontzeptu horren pean, onuradunak guztira 440 maizter izan dira, mota honetako etxebizitza-sustapenak okupatzen dituztenak:

Promotorea	Zenbatekoa
VINSA	138.839.457
COGREMASA	7.273.260
GRUPO ESTEBAN LIZARRAGA	8.762.153
P. SANTA LUCIA	3.885.019
TUTERAKO UDALA	1.656.306
TAFALLA UDALA	1.656.306
<b>Guztira</b>	<b>161.757.954</b>

4.- Maileguen subsidiaziorako kontusailari dagokionean, jakin nahi da kontzeptu honetan guztira zenbat esleitu den 1997an, interes-tasa eta diruz lagunduriko jarduketak direla-eta sustatzaileek eskuratutako kopurua (horrelakorik balego).

Maileguen subsidiaziorako emandako kopurua, 1997an 2.693.842.022 pta.koa izan zela esan behar da.

Finantzaketa-hitzarmenen interes-tasak honako hauek izan dira:

Urtea	T.A.E. korritu tasa %		Oharrak
	Berrikusi gabe	Berrikusia	
1990	13		MOPU berrikusi gabe
1991	12		MOPU berrikusi gabe
1992	12,96	6,22	1997an berrikusia
1993	13,25		1998an berrikusia
	12,40		1998an berrikusia
1994	9,96		1999an berrikusteko
1995	11		2000an berrikusteko
1996	8,75		1999an berrikusteko
1997	5,51		2000an berrikusteko

Sustatzaileen araberako banakapenik ez dago. B.O.E.-Alokairu-Araubidea eta B.O.E.-Araubide Berezia egin zutenek baino ez daukate subsidiaziorako eskubidea, eta azken horiek eraikina eraiki artean, soil-soilik.

Guztizko zenbatekoari dagokionez, hori ondoko taulan azalduz dago:

99001 lerroaren exekuzioa 1997an (Dirulaguntzak eta subsidioak)

AZPILERROA	ORDAINDUTA	AURREKONTUAN	EXEKUZIOA %
Erosteke dirulaguntza	2.641.973.851		
Birgaitzeko dirulaguntza	816.838.023		
Alokatzeko dirulaguntza	764.480.605		
Maileguen subsidiazioa	2.693.842.022		
Eraisteko dirulaguntza	1.695.988		
<b>Guztira</b>	<b>6.918.830.499</b>	<b>6.924.000.000</b>	<b>%99,93</b>

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Batxilergoari eta prestakuntza zikloi dagokien hezkuntza-eskaintzari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak batxilergoari eta prestakuntza zikloi dagokien hezkuntza-eskaintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 24ko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du batxilergoari eta prestakuntza-zikloi dagokien hezkuntza-eskaintzari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

a) Hurrengo ikasturteetarako aurreikusita dagoen Lodosako "Pablo Sarasate" BHIko (Bigarren Hezkuntzako Institutua) hezkuntza-eskaintzak bi lerro ditu DBHrako, gela bakoitzeko 22 ikasleko batezbesteko ratioarekin, eta Natur eta Osasun Zientzietako modalitateko Batxilergoko talde bat eta Giza eta Gizarte Zientzietako modalitateko beste talde bat.

Eskatzaileen kopurua behar adinekoa bada Natur eta Osasun Zientzietako modalitatean ondoko irakasgaiak burutzea aurreikusita dago; Teknologia Industrial I eta Marrazketa Teknikoa

batxilergoko modalitatea zehazten ez duen auzko arloan.

b) Hurrengo ikasturteetarako aurreikusita dagoen San Adriango "Ega" BHIko (Bigarren Hezkuntzako Institutua) hezkuntza-eskaintzak lau lerro ditu DBHrako gela bakoitzeko 24,4 ikasleko batezbesteko ratioarekin, eta Natur eta Osasun Zientzietako modalitateko Batxilergoko talde bat eta Giza eta Gizarte Zientzietako beste modalitate bat.

Ikastetxe honetan Teknologia Industrial I eta Marrazketa Teknikoa Lodosako ikastetxeko baldintza beretan burutu ahal izatea ere aurreikusita dago.

Bestalde, Erdi Mailako bi Prestakuntza Ziklo ere (Merkataritza eta Barazki, Haragi eta Arrain Kontserbagintza) burutzea aurreikusita dago eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloen eskaintza zehazteke dago oraindik.

c) Egako Erribera Beitiko hezkuntza-plangintza 1996an zehaztu zen martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretua aldatzen duen eta Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxeen sarea berrantolatze arauak ematen dituen martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuaren bidez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesus Javier Marcotegui Ros

## Corellan garbitegi industrial bat jartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak Corellan garbitegi industrial bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu

da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Pedro Antuñano Zarraga jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Corellan garbitegi industrial bat jartzeari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da Nafarroako Gobernuak dirulaguntza fondo galdura emateko konpromisoa hartzearen lege-oinarria?

1986ko otsailaren 21eko Ministro-Agindua.

2.- Zein da aipatu protokoloari emateko hitzartu den zenbatekoa, eta zenbat, zehazki, dirulaguntza jaso dezaken kontzeptu bakoitzerako: pizgarri fiskalak, lanpostuen sortzea, inbertsioa...?

A) Aipaturiko M.A.an ezartzen diren dirulaguntza publikoak ondokoak dira:

1) Lanik gabeko langile minusbaliatuekin izaera iraunkorraz sortzen den lanpostu bakoitzeko dirulaguntza, 1.900.000 pta.koa da.

2) Minusbaliatuek harturiko lanpostuari dagokion soldata-kostua diruz laguntzea, baldin-eta egiten duten lanaldia normala bada eta Gizarte-Asegurantzaren alta hartuta badaude. Lanbide arteko gutxieneko soldataren %50eko dirulaguntza da hori.

3) Gizarte-Asegurantzari ordaindu-beharreko enpresa-kuotaren %100eko hobaria, kontratatutako langile ezinduen lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen hobariak barne, eta baita baterako zerga-bilketenak ere.

Aurreko 2) eta 3) atalen barruan sartuta dagoena, gaur egungo araubidearen arabera eginen da; dirulaguntza hau, aplikatu beharreko araubideak izan dezakeen aldaketaren baldintzapean dago.

B) Abenduaren 30eko 24/1996 eta abenduaren 30eko 11/1997 Foru Legeek ezarritako forma eta baldintzak kontuan harturik, enpresak kuota likidotik ondoko kopuruak kendu ahal izanen ditu:

1) Inbertsioari zerga-pizgarriak.

Enpresak aktibo finko material berrietan eginko inbertsioen %15, lur-eremuetakoenak izan ezik, jarduera abian jarri arte. Kenketa hau kuota-mugarik gabe egin ahal izanen da.

Kuotarik ezagatik kendu ez diren kopuruak aplikatu ahal izanen dira aurreko eta geroko bost urteko ezarpen-aldietan.

Preskripzio-aldiaren barruan emaitza positibok lortzen diren lehen ekitaldira arte luzatu ahal izanen da aipaturiko kenketa.

2) Lanpostuak sortzeari zerga-pizgarriak

Ekitaldian bertan sinaturiko lan-kontratu mugagabea duen plantilaren batezbesteko gorakadari (pertsonako eta urteko) dagokion kuotatik 750.000 pezeta kentzea, hori guztiori aurreko ekitaldian kontratu-mota hori zuen batezbesteko plantilari dagokionez, baldin eta plantila osoan kopuru bereko gorakada gertatzen bada.

Aurreko ekitaldiko plantila osoaren batezbestekoak bere horretan iraun duela emanik, lan-kontratu mugagabea duen plantilaren batezbestekoak gora egiten badu eta gorakada hori entitateko plantila osoaren batezbesteko gorakada baino handiagoa bada, bi gorakada horien arteko aldearen truke 250.000 pezetako kenketa eginen da pertsonako/urteko.

Ezinduak Gizartean Integratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikularen arabera, aurreko parrafoetan aurreikusitako kenketak, batezbeste, 900.000 eta 350.000 pezetakoak izanen dira kontraturiko langile minusbaliatuen plantila-batezbestekoaren gorakada (personako eta urteko) kontuan hartuta, eta bakoitza bere aldetik kalkulatu da aurreko parrafoetan ezarritako prozeduretan oinarriturik.

3) Sortu berriak diren Enpresei pizgarriak.

Aurreko 1. eta 2. ataletan ezarritakoaz gainera, Sozietateen Zergaren kuota osoaren %50reko bonifikazioaz gozatu ahal izanen da enpresa (elkarren segidako ezarpen-aldiei dagokien kuotaz alegia, baldin eta jarduera hazi zenetik zazpi urteko epearen barruan ixten badira aipaturiko ezarpen-aldiak. Guztira lau aldi izan daitezke gehienez, aipaturiko epean oinarri likidagarri positiboak lortu diren lehen alditik aurrera kontatzen hasita).

4) Lanbide-Hezitaketako jarduerendako zerga-pizgarriak.

Ezarpen-adi bakoitzean eginko gastuen %15eko kuota kentzea.

3.- Zein irizpide jarraitu dira protokolo hori sinatzeko?

Industria-sustapen eta ekonomia-garapenerako protokoloak sinatzeko orduan, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak dauzkan ohizko irizpideak.

4.- Zein da hitzarmen horren iraupena, eta Departamentuak, legegintzaldi honetako hurrengo

urteetan, sistema honekin jarraitzeko asmoa al du?

Hitzarmen horren iraupena, bertan ezartzen diren konpromezuen betetzearekin batera amaitzen da.

5.- Zein kontrol-mekanismo ezarri ditu Nafarroako Gobernuak garbategia egiteko eskatzen diren baldintzak bete daitezzen?

Dirulaguntza jasotzeko eskubidearen sorburu diren ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak dituen ohizko kontrol mekanismoak.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## N-232 errepideko Castejón-Tutera zatiaren trafikoari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak N-232 errepideko Castejón-Tutera zatiaren trafikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du N-232 errepideko Castejón-Tutera zatiaren trafikoari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein izan den N-232 Errepidearen batezbesteko intentsitatea, 1997 urtean zehar hileroko neurtua, gutizko trafikoa adieraziz eta trafiko astuna eta gainontzekoa banakatuz.

1996. urteari dagozkion hileroko datuak ondoak dira:

	Tutera	Fontellas	Cortes
Urtarrila	10320	12436	8095
Otsaila	10599	12249	9228
Martxoa	10878	13363	9551
Apirila	10765	13207	8215
Maiatza	11144	12809	9414
Ekaina	11130	13328	9461
Uztaila	11075	13410	9191
Abuztua	11309	13169	8978

Iraila	11563	13936	9656
Urria	11149	14633	9953
Azaroa	10735	12666	10059
Abendua	10305	13194	9645
Urteko IMD	10914	13200	9355
% Astunak	%41	%44	%46,4

Gaur egun, 1997an zehar hileroko neurturiko datu bereizirik ez dago, datu horiek oraindik atera gabe daudelako. Dena den, I.M.D.ren datuak 1997. urterako, eginiko neurketen arabera kalkulatuak, honako hauek dira:

Zatia	Guztira	Arinak	Astunak	%
L.P. Errioxa-Tutera (iparraldea)	10889	6289	4600	42
Tutera (iparraldea)-Tutera (mendebaldea)	10012	5492	4520	45
Tutera (mendebaldea)-Ribaforadako elk.	13388	8873	4515	34
Ribaforada elk.-L.P.Zaragoza	11000	6000	5000	45

2.- Aipaturiko errepide-zatian aurkitu diren puntu beltzak, 1997an zehar kalifikaturiko istripukopurua eta hala hildakoen nola larriki eta arinki zaurituen kopurua adieraziz.

1997. urteko datuak.

Istripuak	Biktimak	Hildakoak	Larri zaurituak	Arin zaurituak
47	74	7	26	41

Istripurik gehien daukan tokia 116,6 izeneko P.K. da (Cortesko elkargunea), 1997an izandako istripuak guztira 3 izan baitziren bertan (biktima 1,



hildakorik ez, larri zauriturik ez, arin zauritu 1). Hala ere, datu horiek ikusita ezin da esan puntu beltza denik.

TCA (Istripurik gehien dauzkaten Bide-zatiak) delakoei dagokienez, Departamentuak berriki eginitako azterketaren arabera, 1992tik 1996ra bitartean bi bide-zati detektatu dira aipaturiko bi errepide horietan; horra horien ezaugarriak:

	TCA-1	TCA-2
Tokia	91,8pk.tik 93,6 pk.ra	94,9pk.tik 99,7pk.ra
Luzera	1,8 km	4,8 km
Istripuak	21	62
Biktimak	12	32
Hildakoak	2	1
Larriak	11	25
Arinak	21	50
AI/km batezbestekoa	60,0	60,7

AI = Arriskugarritasunaren Indizea

3.- Ea Nafarroako Gobernuak N-232 errepidea zatika bikoizteari ekin behar dion, A-68 autobidea merketzeko bere ideiak arrakasta handirik izan ez duela ikusirik (dena den, esan beharra dago ideia horrek N-232ren egoera konpontzearekin zerikusirik ez zuela pentsatzen genuela).

Lehenengo eta behin, A-68ko bidesariak merketzea Estatuko Administrazioaren eskumena dela esan beharra dago (Fomento-Ministerioaren

eskumena da, hain zuzen), eta ez Nafarroako Gobernuarena. Beraz, gai honi dakionez, Nafarroako Gobernuak Fomento Ministerioari interes bizi horren berri ematea besterik ezin du egin, enpresa emakidadun "Autopista Vasco-Aragonesa"rekin hitzarmen egokia bila dezan. Hala balitz, bidesariak merketzeko helburuak lortzeaz gain, trafiko handiagoa ere bideratuko genuke A-68tik, N-232ren mesederako.

Hala eta guztiz ere, berriki onartua izan den Nafarroako Errepide-Plan Zuzentzailearen barruan jasotako jarduketaren arabera, Tuterako Sahiesbidea (N-232) zabaltzeari ekinen zaio, gutxi gora-behera 10,02 km.ko luzeran (aipaturiko errepidearen luzera 34,02 km.koa da Nafarroako lurraldean). Planifikaturik dagoenez, jarduketa hori 1999-2001 hirurtekoan eramanen da aurrera.

Nafarroako gainerako bide-zatiei dagokienez, ustez egin beharko ziren zabaltzeak ondo koordinatu beharko lirateke zentzu horretan eginen diren jarduketekin (garrantzi askoz handiagokoak direnekin alegia), Errioxa eta Zaragozan eginen baitira horiek, Nafarroako mugan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Kuota handitzeak Nafarroako Abeltzaintzarako ekarriko dituen ondorioei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak kuota handitzeak Nafarroako Abeltzaintzarako ekarriko dituen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

"Askotarikoa" Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Kuota handitzeak Nafarroako Abeltzaintzarako ekarriko dituen ondorioei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

a) Planteatu diren galderei erantzun baino lehen, gaurko banaketak Nafarroako esne-kuota ez duela gehituko gogoratzea komeni da, zeren banatu-beharreko kopurua (922.000 kg.) kanpainaren batean produzitu ez duten Nafarroako beste abeltzain batzuegandik dator, edo bestela, finkaturiko kopuruaren %75aren azpitik beren



esnea eman edo saldu duten abeltzainengandik dator.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, lehenengo kasuan abeltzainak bere kuota osoa gaitzen du; eta bigarrenetan, erabili ez duen zatia. Erreserba nazionalera pasatzen dira galduriko kopuru horiek guztiak, eta oraintxe hasi dira horiek banatzen.

Bestalde, nafar esne-sektorearen gainean horrek daukan eragina baloratzeko, nahikoa da hauxe esatea: behi batek urtean 5.000 kg. esne emanen balu (eta Nafarroan batezbestea handiagoa da), kopuru osoa 184 behiren produkzioaren adinakoa izanen litzateke.

b) Landa jaunari erantzun nahirik,

1. Gaur egungo erreferentziazko kopuruak banatzeko Departamentu honek erabiliko dituen irizpideak finkaturik daude otsailaren 16ko 174/1998 Errege Dekretuan (otsailaren 17ko E.A.O.) eta 1998ko urtarrilaren 12ko Foru Aginduan (N.A.O.), horiek baitira Foru Parlamentario jaunak ikus ditzakeenak.

2. Bi arauak ezartzearen poderioz sortuko dira onuradunen profila (bazerituriko inguruak eta gazteak, gehienbat), azpiegitura-mailako hobekuntzak barne (erreferentziazko kopuruak, esaterako,

50.000tik 100.000 kg.ra bitartean egonen dira). Kudeaketa tekniko-ekonomikorako eta esnearen kalitatea hobetzeko programetan parte hartzen dutenak ere barruan sartuta egonen dira, esne-kontrolguneak barne.

Besteak beste, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: esne-produktore nagusiak eurak izatea, esne-produkzioa behin betiko uzteko planen batean hitz emanda ez egotea, eta erreferentziazko kopururik inoiz transferitu ez izana. Produktua biltzeko hitzarmena, ordea, baldintza horietatik kanpo dago.

Onuradunak izan litezkeenei (denak pertsona fisikoak izanen balira, eta denei gehien finkatua - 15.000 kg- tokatuko balitzaie), 61 izanen lirateke.

3. Azterketa tekniko-ekonomikoak ikusita, zera ondorioztatzen da: beste errenta batzuekin osaturik ez dagoen esne-ustiapenarentzako kuota egoikiak, gutxi gora-behera, 250.000 kg.koa behar luke izan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 9ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava

Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Nafarroako Artxibo Nagusia informatizatzeko espedienteari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. Esleitzeko erabili den sistema zergatik izan da prozedura negoziatua, publizitate eta lehiaketa gabea?

Ebazpen hau, ondoko arrazoiengatik hartu da:

a) Vianako Printzea Erakundeko Ondare Historikoaren Zerbitzuak, "Informática el Corte Inglés, S.A." enpresak Indietako Artxiborako landutako sistema informatikoa eskuratzeko beharra adierazi du Nafarroako Artxibo Nagusian ezartzeko. Izan ere, sistema hau estatuko artxiboetan orokorrean aplikatu daiteke, eta artxibo hauek eskatutako funtzionaltasun guztiak betetzen ditu.

b) Informazio Sistemek ondoko hau proposatu dute: "Informática el Corte Inglés, S.A." enpresari esleitzea, prozedura negoziatua, eta publizitate eta lehiaketa gabearen bidez, enpresa hau izan baitzen "Archidoc" eta "Archiges" datu-baseko eta digitalizazioko programa landu zuena. Programa hauek, artxiboetarako standard bihurtzeaz gain, enpresa honek bakarrik jartzen ditu salgai.

2. Beste enpresaren bati aurkeztu al zaizkio esleipen hau lortzeko baldintzak?

Aurreko puntuaren erantzunean adierazi bezala, "Informática el Corte Inglés, S.A." enpresak, "Archidoc" eta "Archiges" datu-baseko eta digitalizazioko programa landu du, eta enpresa honek bakarrik jartzen du salgai.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erreglamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkartek egindako eskaerei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erreglamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkartek egindako eskaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkartek egindako eskaerei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari jaunaren erantzuna:

Egunkari eta Aldizkari Saltzaileen Lanbide Elkartek Nafarroako Gobernuan egindako eskaerarekin loturik, ondoko hau adierazi da:

- Pentsaren eta egunkarien igorketa erregulatuko duen araudirik ez dagoenez, produktu hauek janari-dendetan saltzeko askatasuna dago, beti ere baimenak badituzte (Ekonomia Jardueraren gaineko Zerga edo lizentzia fiskala) eta osasun-ordenantzaren aurka ez badoaz (produktuetatik guztiz banaturik).

- Pentsa-saltzaile profesionalen estatutu juridikoa (bere lan-zirriborroa Elkarteko abokatuak Departamentu honi 1996ko apirilaren 4an aurkeztu zion) zerikusia duten aldean zuzenketa- edo iradokizun-fasean dago.

Iruñean, 1998ko martxoaren 23an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## DBHrako hitzartutako zentroyen gaurko egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak DBHrako hitzartutako zentroyen gaurko egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 25ko 21. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Begoña Errazti Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du itunpeko ikas-

tetxeek euren "eskola-mapa" delakoarekiko gaur egun duten egoerari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Ikus 1 eta 2 eranskinak

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarioen eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jarduerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jarduerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 9ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 31n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak erantzuteko galdera egin du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek Imarkoainen sorturiko arazoak konpontzeko eginiko azterlan eta jarduerari buruz. Hona Herrilan,

Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Garraioaren Hiriko hustubideek urak Kalamuz eta Arkotxain erreketan isurtzen dituztela al deritzo? Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aurreko udarako uholdeak Talluntxe errekek gainezka egin zuelako izan zirela? Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Kalamuz eta Arkotxain errekek Dorre-Gerendiain eta Alaizko urak jasotzen dituztela hurrenez hurren? Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Kalamuz eta Arkotxain errekek eta Talluntxe erreka bereiztuta daudela erdian Dorreko bidea dagoelako, eta Talluntxeko erreka izan zela gainezka egin eta uholdea eragin zuena?

141-IV orrian, 1:25.000 eskalako Espainiako Mapa Topografiko Nazionalean, Imarkoain herritik igarotzen diren bi errekek Kalamuz eta Arkotxain izenekin agertzen dira. Orri horren fotokopia erantsi da.

Kalamuz eta Arkotxain errekek, Imarkoango udalerrian dagoen Yoldi baserriaren ondotik igarozten dira. 1,32 eta 2,93 Km<sup>2</sup>-ko isurialdeak, 2,5 eta 5,1 Km-ko ibilgu-luzerak, eta 55 eta 430 m-ko desnibelak dituzte. Balio hauek erreken behealdean, eta aipatutako Yoldi baserriaren inguruan hartu ziren.

Arkotxain erreken ibaiadarra den Kalamuz erreken isurialde-arroako azaleraren %45a, etorkizunean egingen den Garraioaren Hiriak okupatuko du. Etorkizunean, Hiria egin ondoren, uholde-emia handitzea aurreikusiz, erreka haren emariaren azaleraren iragazkaiztasunaren ondorioz. Kalamutz erreka gehitu ondoren kokatutako Arkotxain erreken zatian ere eragina izanen du.

Bi erreketan –Kalamuz eta Arkotxain– kalkulatuak gehieneko uholde-emariak 2,85 eta 8,75 m<sup>3</sup>/s bitartean lehenengo kasuan eta bigarren kasuan 2,54 eta 12,03 m<sup>3</sup>/s bitartean daude, 2 eta 500 urteko errepika-denborak, hurrenez hurren, eta Garraioaren Hiriaren eraikuntzak sartutako isurketa-hazkuntza kontuan hartuz. Uholde-emari horiek, Yoldi baserriaren ondoko erreketako sekzioak, eta inguruko errepideen eta bideen azpiko erreken pasabiderako fabrika-obren neurriak kontuan hartuz, egindako kalkulu hidraulikoek adierazi dute bidearen zenbait puntutan urak gainezka egiten duela, NA-5001 errepidearen azpiko Arkotxain erreken bidegurutzetik gora, eta ia Elorz ibaira heltzerakoan erreken goiko aldean errepide horrekin gurutzatzen den bigarren mailako bidearen parean 2 urte inguruko errepika-denborei dagozkien uholde-emariak gertatuz. 10 urte inguruko errepika-denborari dagozkion emariekin, Yoldi baserriaren sarrera-errepidearen azpiko Kalamuz erreken bidegurutzetik gorako uretan gainezkatzeak gertatzen dira, inguruko eraikinak kaltetuz.

1997ko abuztuaren 6an, Imarkoain udalerrian intentsitate handiko ekaitza gertatu zen, Garraioaren Hiria eraikuntza-fasean zegoenean. Ekaitzaren ondorioz, Arkotxain eta honen ibaiadarra den Kalamuz errekek gainezka egin zuten, inguruko zelaia eta Yoldi izeneko baserriko zenbait etxebizitzetako beheko oinak urak hartu zituen.

2. Zer helburu du Arkotxain eta Kalamuz erreketan azterlan hidrologikoa eta hidraulikoak egitea?

Kalamuz eta Arkotxain erreken azterlan hidrologikoa eta hidraulikoa egiteak, bi erreketan gerta daitezkeen emariak ezagutzea du helburu, euren gertaera-probabilitatearen eta erreka horien hustubide-gaitasunaren arabera.

Informazio honetaz baliatuz, 500 urteko errepika-denborako uholdearekin errekek gainezka ez egiteko beharrezko bideratze-jarduerak definitu dira.

3. Zer jarduera ondorioztatzen dira Txosten Baloratutik eta zer kostu dituzte han aurreikusitako lanek? Txosten Baloratu hau Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak aipatu zuen aurreko erantzunean.

Azterlan honetatik ondorioztatutako jarduerak ondoko hauek dira: hirigunearen inguruko ubideak zabaldu, zati batean harri-lubetzaz estali, eta bideen eta errepideen pasabide-lanak egokitu 500 urteko errepika-denborako uholdeekin gainezka ez egiteko.

Hobekuntza horien eraikuntzaren kostu osoaren behin-betiko ebaluazioa egiteko dago, 20 eta 30 milioi inguru egonik. Ubideak zabaltzearen ondorioz beharrezkoak izan litezkeen besterentzeen kostua ez da kopuru horretan sartu.

4. Ba al daki Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Imarkoango Kontzejuak kontratatutako injineru tasatzaile batek kalteen balorazio txostena egin zuela eta zein den kalteen zenbatekoa? Ba al du asmorik Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kaltetutako biztanleei kalte horiek ordaintzeko?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez du balorazio txosten horren berririk.

5. Aurreikusita al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bileraren bat egin edo lan saioaren batera deitzea Imarkoango Kontzejuak, horiei txosten, azterlan eta txosten baloratuak azaltzeko?

Imarkoango Kontzejuan gerta litezkeen arazoak konpontzeko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, bere eskuduntzakoak diren beharrezko jarduerak egiteko helburua du, euri-erauntsi bortitzak eragindako erreka batek gainezka egin zuen egoera kontuan hartuz. Egin beharreko jarduerak hitzartzeko beharrezkoak izanen diren bilerak egingen dituzte Imarkoango Kontzejuarekin.

6. Aurreikusita al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak hilerriko bidean hobekuntzaren bat egitea (Garraioaren Hiria eraikitzen aritu ziren kamioien joan-etorriak arrunt hondatu zuen)?

Garraioaren Hiria, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren menpe dagoen enpresa publiko baten bidez kudeatzen dute. Enpresa honen jardueren artean, Garraioaren Hiri horren

eraikuntza-lanen kontrola eta ikuskapena egonen lirateke. Beraz, obrek eragindako kalteen konponketa, kalteak gertatuz gero, jarduketa horren arduraz izanen da.

7. Aurreikusita al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Kalamuz erreka-aren azken zatia (Elortz ibaian ibairatzen dena) egokitzeko behar diren jarduerak aurrera eramatea, edota Eboko Ur Konfederazioari hala egiteko eskatzea?

Ubide publikoen mantenimenduaren erantzukizuna, ubide horiek aurkitzen diren Udalena da. Obra Hidraulikoen arloan Estatuko Administrazioaren Zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko azaroaren 18ko 1391/1988 Errege Dekretuaren argitalpenaren ondoren, obra hidraulikoak egiteko toki korporazioei, entitateei edo par-

tikularrei laguntza ekonomikoak emateko funtzioak, Nafarroako Foru Komunitatearen eskuduntza dira.

Horretarako urtero Bideratze- eta Defentsa-obretarako, eta bestelako Obra Hidraulikoetarako laguntzak arautzen dituen deialdia argitaratzen da.

Hala ere, kasu berezietan, Nafarroako Gobernuak obra-mota hauek egiten ditu. Gorago adierazitako Errege Dekretuaz geroztik, Eboko Ur Konfederazioak ez ditu mota honetako obrak egiten, eta horregatik ez da obra horiek egiteko Erakunde horri laguntza eskatzea aurreikusi.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Unibertsitate prestakuntzaren guztizko gastuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak unibertsitate prestakuntzaren guztizko gastuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Unibertsitate prestakuntzaren guztizko gastuari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak Nafarroako unibertsitate-ikasleei emandako beka eta laguntzen zenbatekoa:

– Nafarroako Unibertsitatea: 459.704.293 pta.

– Estatuko beste unibertsitate batzuk: 127.862.831 pta.

– Espainiatik kanpoko beste unibertsitate batzuk: 11.893.932 pta.

2.- Beste Autonomia Erkidego batzuetatik datozen ikasleentzat, Nafarroako Gobernuak 5.164.960 pta. erabili ditu.

3.- Nafarroako Unibertsitatean ikerketa-proiektu eta jardueretarako, Gobernuak 14.276.300 pta. erabili ditu.

4.- Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpoko hainbat ekipamendutarako eta bestelako unibertsitate-zerbitzuetarako, dirulaguntzak eta bestelako laguntzak, guztira 10.800.000 pta.koak dira.

5.- Nafarroako Unibertsitatean euskara ezagutzera emateko edota hedatzeko dirulaguntzarik bat ere ez dago.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 24an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerekin buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerekin buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 9ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeko Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometituta dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerekin buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen, Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zeintzuk izan ziren han ez egoteko arrazoiak?

Ugatza berreskuratzeko Planean Nafarroak konprometitutako jazarpeneko jardueren dagozkien dokumentazio eta informazio guztia bidali zen arren, bileran parte hartu behar zuen teknika ez zen bertaratu, berak egin beharreko beste-

lako betebeharrekin lehentasuna eman zielako. Zerbitzuari arrazoi hauek egokiak iruditu zitzaizkion.

Interesatuak, adierazpen hauek argitaratu eman zituen "Diario de Noticias" egunkarira zuzendutako eta 1998ko otsailaren 26an argitaratu zen gutun baten bidez. Egunkari horretan, argitaratu zeneko orriaren fotokopia erantsi da.

2. Nork eman zien ez joateko agindua normalean bilera horretara joaten ziren funtzionarioei?

Topaketa hauetara joaten den Teknikariari ez zion inork Jardunaldi hauetan parterik ez hartzeko agindurik eman.

3. Gobernua bereizi egin al da Ugatza Berreskuratzeko Planetik?

Nafarroako Gobernuak ez du Ugatza Berreskuratzeko Plana eta "Life" proiektua uztea pentsatu.

4. Ba al du hurrengo bilerara joateko asmorik?

Bai, hurrengo bilerara deitzean bertan agertzeko asmoa du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo



## **N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat NA- 160 eskualde errepidean, Tuteracintruénigo tartean**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak hurrengo galdera egin zuen: N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat errepidearen NA- 160 eskualde errepidean, Tuteracintruénigo tartean. Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 9ko 18. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Nueva Izquierda” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak erantzuteko galdera egin du Cintruenigoko Saihesbidean N-113 eta NA-160 errepideen arteko bidegurutzearan emandako arazoei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein izan da hautaturiko alternatiba aukeratzeko metodoa eta zein aldagai hartu dira aintzat?

Gaur egun jendeaurreko argibidearen ebazpenaren zain dagoen proiektua ez da N-113 eta NA-160 errepideen bidegurutzaketa konpontzeko pentsatu, diseinatu eta proiektatu (egia esan, ez du inolako loturarik), Cintruenigoren eta bere Industrialdearen arteko komunikazioak konpontzeko baizik.

Aukeratutako alternatiba hautatzeko, ohiko metodoa erabili da, hau da, proiektua idatzi duen taldearekin zenbait alternatiba bideragarri planteatu, eta horien artean, proposatutako helburuak gutxien betetzen dituztenak baztertuz joan. Irtenbideak bilatzeko azterketa-fase honetan Cintruenigoko Udaleko Lan Batzordearekin batera lan egin zen. Bertan proiektugileari, Cintruenigoko bilbearekin eta bere Industrialdearekin lotura berriak egiteko puntuak adierazi zitzaizkion.

Aztertutako aldagaiak ondoko hauek izan dira batez ere: N-113ko, eta Cintruenigo eta Industrialdearen arteko trafikoa, trafiko horren osaketa (astunak, arinak, ziklomotoreak, oinezkoak, eta

abar), inguruneak eskaintako drenatzeko aukerak (azpitik pasabidea egitea kontuan hartzeko aukera) eta ezaugarri geometrikoak, bai aurretiko bistan, bai eta goitiko bistan ere (Errepide Instrukzioaren arabera), eta okupatzen duen azalera handia ikusirik, eta inguruan dauden eta kaltetu ditzakeen eraikinak, bideak eta ibilguak ikusirik, bide-lotura non egin daitekeen.

2. Zein izan dira Departamentuak urte hauetan aztertu dituen alternatibak N-113 errepidea zeharkatzen duten bidegurutzaketei konponbidea emateko, Cintruenigoko saihsbide bezala hartu daitekeen horretan?

Cintruenigoko Saihsbidea, N-113an, titulartasuna Nafarroako Gobernuari dagokion sareko NA-160 errepidearekin gurutzatzen da behin, eta beste bitan, Cintruenigo eta bere Industrialdea lotzen dituen bidearekin.

Gaur egun hiru bidegurutzaketak, sestran aurkitzen dira, N-113ko ibilgailuek lehentasuna izanik.

Bertarako, zenbait azterketa eta proiektu egin dira.

Lehenengorako, N-113 / NA-160 bidegurutzaketa, bi proiektu idatzi dira:

– Bat, “El Culebrete” deitutako Eskualdeko Zabortegiaren eta N-113 errepidearen artean doan NA-160 errepidearen hobekuntza-proiektuan sartutakoa. Bertan, zatitutako glorieta mota bat ezarri da. Glorieta honek, errepide horietako trafikorako irtenbide egokia eskaintzen du segurtasunaren ikuspegitik (neurri egokia, dezelerazio-erreiak, ikuspena, eta abar).

– Beste proiektuan bidegurutzaketa hori, sestra desberdineko loturaren bidez egitea aurreikusi da, era honetara, elkargunetik hurbil dagoen Soria-Castejón trenbidearen gaineko pasabideari irtenbidea emango diona. Bigarren irtenbide hau, aurrekoa baino handizaleagoa da eta beranduago egitea aurreikusi da.

Cintruenigoko hirigunea eta Industrialdea lotzen dituzten beste bi bidegurutzaketei dagokienez, hauek konpontzeko proiektua egin zen, azelerazio- eta dezelerazio-erreiak eta ikuspen handiagoarekin.



Hala ere, gertatutako azken istripuak, sortutako gizarte-sentsibilitatea, eta N-113ko trafikoan eragin dezaken arriskua ikusirik, proiektu bat egin zuten, gaur egun jendeaurreko argibideen ebazpen-fasean dagoena. Proiektu honek, sestra desberdineko loturen bidez, gaur egun dauden bi bidegurutzeak elkartuko lituzke, eta saihezbide horren segurtasuna asko hobetuko luke.

3. Zein dira Nafarroako Gobernuaren planak NA-160 eta N-113 errepideetako bidegurutzeak buruz, gogoan harturik bidegurutze hori oso arriskutsua dela? Ba al dago lan horiek burutzeko epeirik, NA-160 eskualde-errepideari dagokionean? Halakorik izatekotan, jakin nahi da lanak noiz hasiko diren eta nolakoa den aukeratutako konponbidea.

Nafarroako Gobernuak NA-160 errepidearen azken zatia, Culebrete eta N-113 bitartean, zabalteko eta hobetzeko lanak aurki hastea aurreikusitako du. Obra horretan sartuko lirateke: errepidea hobetu eta zabalagoa egitea, eta gaur egun ses-tran dagoen elkargunea aldatzeko tamaina handiko glorieta zatitua paratzea.

NA-160, N-113 errepidearen gainetik pasatzeko lanak beranduago eginen dituzte.

4. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak Cintruénigo hiriko sektore handi batean N-113 errepideko bidegurutzerako aukeratu den planteamenduak sortu duen ezinegona eta ustekabea, batez ere trafikoa alderdi dotazional batetik sartu nahi delako (ikastetxe publikoa, Kirol instalazioak, pasealekua eta abar)?

Nafarroako Gobernuak ezagutzen du Cintruénigo hiriko sektore batean sortutako atsekabea; izan ere, beste hainbat gauzen artean, jendearreko fasean gaude, eta proiektu horri buruzko alegazioak ari dira jasotzen. Hala ere, Gobernuak badaki bertako Udala, hasieran onartutako proiektuaren alde dagoela.

5. Zein dira bestelako aukerak baztertzeko izan diren arrazoiak, kontuan hartuz desjabetzapenak ekidinen lituzketela Udalak behar diren lur gehienak erreserbatuta dituelako behar horretarako?

Alternatiba baten edo bestearen aukeraketa ez da lurren erabilgarritasunaren arabera egiten (bal-dintza berean izan ezik, baina oraingo honetan ez da kasu hori ematen), 1. galderaren erantzunean adierazitakoa jarraituz lortu nahi dutenaren ezaugarrien eta funtzionaltasunaren arabera baizik.

Hala ere, Departamentu honek ez du ezagutzen, aztertutako alternatiben artean, Udalak, behar horietarako gordetako lurretan zenbaterainoko eragina duen. Korporazioak inoiz ez du alderdi honi buruzko informaziorik eskaini, eta ez da herri horretan indarrean dagoen hirigintza-antolamenduan agertzen.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erre-gramenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## “Endekaturiko inguruak leheneratzea eta ingurugiro eraginak zuzentzea”, 90037-1 lerroa, aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruzko gal- dera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Endekaturiko inguruak leheneratzea eta ingurugiro eraginak zuzentzea”, 90037-1 lerroa, aurrekontu-kontusailaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Endekaturiko inguruak leheneratzea eta ingurugiro eraginak zuzentzea”, 90037-1 lerroa, aurrekontu-kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aipaturiko kontusaila zer neurritan beteta zegoen abenduaren 31n, eginiko jarduketak, horien kostua, emandako dirulaguntza, kutsaturiko gunearen kokapena eta horren sailkapena - Nafarroako kutsaturiko lorzoru eta guneen eskalari jarraituz- xehetasunez azalduz.

Abenduaren 31n, “Endekaturiko inguruak leheneratzea eta ingurugiro eraginak zuzentzea” kontusailaren exekuzio-maila (90037-1 lerroa), %31,8koa zen.

Hainbat zabortegei eta hondakindegiei itxi edota zigilatatu egin dira, eta Departamentuak berak exekutatu ditu ekintza horiek.

Aipaturiko zabortegei eta hondakindegiei, eta jarduketaren kostua, jarraian zehaztuta daude:

• Beriain	378.076
• Ilurdotz	399.086
• - Atarrabia (Trinidad de Arre)	
- Baztan (Amaiur, Berroeta, Gorzain)	4.944.500
- Belate errepidea (zazpi puntu)	
• Endekaturiko eskualdeak	1.909.566
<b>Guztira</b>	<b>7.631.228</b>

1997ko aurrekontuaren barruan, “Lurzoruen deskontaminazioa, hondakin arriskutsuek kutsaturiko lurzoruei loturiko jarduketak” izeneko kontusaila ere bazegoen (11320-5 lerroa), eta horren exekuzio-maila %45ekoa izan da. Kontraturiko hiru laguntza tekniko inbentarioa eta karakterizazioa, eta baita horien kontrola eta jarraipena ere, kutsaturiko lurzoruei dagozkie, eta ez etxeko edo hondakin-zabortegei eta hondakindegiei.

Burururiko jarduketak, eta bakoitzaren kostua, honako hau izan da:

– Kutsaturiko lurzoruen inbentarioa	6.380.000
– Kutsaturiko lurzoruen kontrola eta jarraipena	7.087.000
– Bidasoa erreka inguruan kutsaturiko lurzoruen kontrola eta jarraipena	5.907.430
<b>Guztira</b>	<b>19.374.430</b>

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

**Babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruzko galdera****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “babestutako espezieekin ikerketa lanak egiteko baimenak” delakoari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat baimen sinatu ditu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak espezie babestuekin edo bestelako espezieekin ikerlanak egiteko?

1996 urtetik 1998ko martxoaren 24ra arte, 134 baimen eman dira.

2. Zein entitateri eman zaizkie baimenak, Naturguneak eta basa flora eta faunari buruzko martxoaren 27ko 4/89 Legearen 26 eta 28. artikuluen aplikatuz eta Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/93 Foru Legearen 9. artikulutik 14. artikulura bitartekoak aplikatuz?

1. Eranskinean esleipen guztien onuradunak azaltzen dira xehatuak.

3. Horietako bakoitzari buruz, puntu hauek ezagutu nahi ditugu: aplikazio-eremua, baimenak indarra izanzen duen aldia, baimendutako espezieak eta baimen horiek emateko baldintza osagarriak.

00489 zenbakiarekin Nafarroako Parlamentuak erregistratutako informazio-eskaerari erantzunez eskainitako dokumentazioan, ondoko datuen xehetasunak adierazten dira: aplikazio-esparruak, baliotasun-aldia, espezieak eta baimena eskaintzeko baldintza osagarriak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

**ERANSKINA**

TITULARRA	GAIA	INDARRALDIA
D. Sánchez Eguialde	Gaueko eta eguneko tximeletak	1996 urtea
M <sup>a</sup> Fe Perez Toledano	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
J. Dean Pinedo	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
José Carlos Irurzun	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
J. Jesús Iribarren	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
A. Rodríguez Arbeloa	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
C. Astráin Massa	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
David Campión	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
P. Molina Holgado	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
A. Acha Martín	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
J. Sanz Zuasti	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
E. Soto-Largo Meroño	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
T. Velasco Tejada	Hegazti uztarrak	1996 urtarrila
Gurelur	Zikona (kabiak konpondu)	1996 urtea

TITULARRA	GAIA	INDARRALDIA
J. T. Alcalde D. De Cerio	Kiropteroak	1996 urtea
Alberto Gosá	Rana dalmatina	1996 urtea
Alberto Artázcoz	Araba zozo beltza	1996 urtea
Larrión y Pimoulier	Zenbait espezien argazkia	1996 urtarriletik martxora
G. Astudillo Pacheco	Podarcis muralis	1996 urtea
M. García Paris	Podarcis muralis	1996 urtea
L. Esteban Fernández	Ur-zozoa	1996 urtea
A. Artázcoz Labiano	Aves paseriformeak	1996 urtea
Karel Cerny	Lepidopteroak	1996 urtea
P. Sesma Egozcue	Podarcis hispanica, P. muralis eta Natrix maura	1996 urtea
F. Urrea Maya	Basakatua	1996 urtea
N. López Labat	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
M. Barbería Cemboráin	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
J.P. Gómez Fernández	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
F. Mediavilla Ayala	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
R. Mediavilla Ayala	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
A. Munilla García	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
O. Ibáñez Escarda	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
Y. Oroz Legal	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
I. Petri Navarraz	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
Francisco Campos	Zertxun gorria	1996 apiriletik ekainera
Jesús M <sup>a</sup> Lekuona	Zertxun gorria	1996 apiriletik ekainera
Laurent Charbonnier	Zikoña filmatu	1996ko maiatzak 15etik 31ra
Laurent Charbonnier	Arrano sugegolea	1996ko uztailak 4tik 23ra
F. Urrea Maya	Hainbat karniboro	1996 urtea
F. Fernández Rubio	Zygaena y Procradini	1996 urtea
A. Madoz Unanua	Espezie babestuak maneiatzea Ilundaingo zentroan	1996 urtea
John. B. Heppner	Lepidopteroak	mayo 1996
C. Fernández León	Dendrocopos leucotos eta D. medius	1996 martxotik abendura
F. J. Ocharan Larrondo	Odonatoak	1996 maiatzetik urrira
R. Ocharan Ibarra	Odonatoak	1996 maiatzetik urrira
Mike Edwars	Belardi-kilkirra eta mendi-kilkirra	1996 apiriletik abendura
Gurelur	Habietarako kaxak	1996 urtea
C. Astráin Massa	Txoriandre pispoleta	1996 apiriletik abendura
C. García-Fresca Frías	arrainak	1996 urtea
J. Oscoz Escudero	arrainak	1996 urtea
R. Miranda Ferreiro	arrainak	1996 urtea
C. Escala Urdapilleta	arrainak	1996 urtea
Marc Salomon	Txio arrunta	Habia egiteko garaia 1996
F. Lencina Gutierrez	Lepidopteroak	1996 uztailatik abuztura
E. Castián Arruazu	Desman piriniarra	1996 ekainatik irailara
A. Rueda Díez	Desman piriniarra	1996 ekainatik irailara
J. Martínez-Lage Alvarez	Desman piriniarra	1996 ekainatik irailara
J. Martínez-Lage Alvarez	Igaraba	1996 ekainatik irailara

TITULARRA	GAIA	INDARRALDIA
J. Gosalbez Noguera	Desman piriniarra	1996 ekainatik irailara
J. Dieguez	Bertako karramarroa	1996 uztaila eta abuztua
C. Escala y otros	Larraun erreko fauna	1996 abuztua eta iraila
J. González Esteban	Microugaztunak	1996 abuztua-1997 abendua
I. Irizar Unzilla	Microugaztunak	1996 abuztua-1997 abendua
B. León Anguiano	Hegazti harritarrek filmatzea	1996 iraila
R. Araujo y M. Ramos	Gasteropodoak eta bibalbioak	1996 irailetik abendura
A. Rueda Díez	Bertako karramarroa	1996 urritik 1997 abendura
J. Dieguez Uribeondo	Bertako karramarroa	1996 urritik 1997 abendura
A. Llamas Sainz	Rana pyrenaica eta R. temporaria	1996 iraila eta urria
Andoni Canela	Saiak argazkia	1996 azaroak 12-30
P. Herrero Solans	Rana temporaria	1997 urtea
L. Alberdi	Araneidoak	1996 azaroa eta abendua
J.A. San Martín	Oligoketoak	1996 azaroa eta abendua
J. Molina Azcona	Miriapodoak	1996 azaroa eta abendua
Ana Badía	Moluskuak	1996 azaroa eta abendua
Gurelur	Zikoinak habi artifizialak	1997 urtea
P. Sesma Egozcue	Podarcis hispanica, P. muralis eta Natrix maura	1997 urtea
J. Dieguez Uribeondo	Pazifikoko karramarroa eta padurako karramarroa	1997 urtea
C. Maza García	Paseriformeak argazkia	1997 urtea
D. Alonso Urmeneta	Mokokerra eta mendi-txirriskila	1997 urtea
A. Onrubia Baticón	Basoiloa	1997 urtea
M.A. Campos Marcos	Basoiloa	1997 urtea
A. Lucio Calero	Basoiloa	1997 urtea
F.J. Purroy Iraizoz	Basoiloa	1997 urtea
M. Sáenz de Buruaga	Basoiloa	1997 urtea
D. Sánchez Eguialde	Gaueko eta eguneko tximeletak	1997 urtea
J. Ardanaz Baquedano	Mirotz zuria	1997 urtarrila
A. Artázcoz Labiano	Paseriformeak eraztuna jarri	1997 urtea
A. Artázcoz Labiano	Araba zozoak eta saiak	1997 urtea
J.T. Alcalde D. De Cerio	Kuiropteroak	1997 urtea
Fermín Urra Maya	Basa katua	1997 urtea
F. J. Ocharan Larrondo	Odonatoak	1997 martxotik abendura
R. Ocharan Ibarra	Odonatoak	1997 martxotik abendura
Joseba del Villar	Ardeidoak argazkia	1997 apirila-uztaila
J. T. Alcalde D. de Cerio	Kiropteroak	1997 urtea
J. Herrero y otros dos	Ugaztunak Bertizen	1997 apirila-abuztua
J. Gastón Ortiz	Lepidopteroak	1997 apirila-azaroa
Andoni Canela	Saiak argazkia	1997 apirila
M. Aguirresarobe Huegun	Erropalozeroak	1997 apirila-urria
P. Azkona Serrano	Eper grisa eta lagopodoa	1997 urtea
C. Fernández León	Eper grisa eta lagopodoa	1997 urtea
E. Soto-Largo Meroño	Hegazti uztarrak	1997 urtea
J.L. Agoiz Bustamante	Kakalardoak koleopteroak	1997 abuztua-urria

TITULARRA	GAIA	INDARRALDIA
Marc Salomon	Txio arrunta	habia egiteko garaia 1997
A.F. San Martín Moreno	Kakalardoak hainbat familia	1997 urtea
Nafarroako Unibertsitateko Zoologia eta Ekologia Dep.	Fauna iberiarra	1997-2001
J. Martínez-Lage Alvarez	Igaraba	1997 urtea
Jean Claude Vignes	Arrainak Orgin	1997 urtea
Gurelur	Paseriformeak eraztunak jarri	1997 iraila-urria
Fundación Quebrantahuesos	Sai arrea	Urria 13-31
Fundación Ugatza	Ugatza	Urria 14-16
José Ignacio Moreno	Ugatza	1997 abendua-1998 urtarrila
Oscar Aedo Elguezábal	Lepidopteroak	1998 urtea
D. Alonso Urmeneta	Mokokera eta mendi-txirriskila	1998 urtea
Gurelur	Zikoina (habiak zaindu)	1998 urtea
E. Ayala Santibañez	Hegazti uztarrak argazkia	1998 urtea
José Angel López	Hegazti uztarrak argazkia	1998 urtea
C. Maza García	Paseriformeak argazkia	1998 urtea
Jose Ignacio Moreno	Ugatza argazkia	1998 otsaila-martxo
A. Artázcoz Labiano	Usapal turkiarra eraztuna jarri	1998 urtea
D. Sánchez Eguialde	Gaeko eta eguneko tximeletak	1998 urtea
J.L. Agoiz Bustamante	Kakalardoak koleopteroak	1998 urtea
J. T. Alcalde D. de Cerio	Kiropteroak	1998 urtea
G. Ramos Eguíluz	Kakalardoak koleopteroak	1998 urtea
Jesús M <sup>a</sup> Lekuona	Hegaztiak eraztuna jarri	1999 otsaila arte
A. Aragües Sancho	Hegaztiak eraztuna jarri	1999 otsaila arte
A. Onrubia Baticón	Hegaztiak eraztuna jarri	1999 otsaila arte
J.E. Gómez Jiménez	Hegaztiak eraztuna jarri	1999 otsaila arte
F.J. Nalda Sáenz Torre	Hegaztiak eraztuna jarri	1999 otsaila arte
R. Saralegui Alfaro	Hegaztiak eraztuna jarri	1999 otsaila arte
T. Latasa Asso	Lepidopteroak	1998 urtea
Eyjolf Aistleitner	Lepidopteroak	1998 urtea
F.J. Gastón Ortiz	Lepidopteroak	1998 urtea
J.I. Recalde Irurzun	Kakalardo koleopteroak	1998 urtea
M. Aguirresarobe Huegun	Kakalardoak koleopteroak	1998 urtea

## Uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-mailadiak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntze buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 17ko 19. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du gaur egun lanean ari diren minizentral hidroelektrikoetan, arrain-haztegietan eta antzekoetan ura biltzeko eta bideratzeko obrek uretako nahiz lurreko faunan eragina gutxitzeko behar diren arrain-eskalak edo -pasabideak eta bestelako babesak eraiki edo hobetzeko dirulaguntzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat eskaera aurkeztu dira aipatu diren dirulaguntzetarako? Horien zerrenda ematea nahi da, ondokoak zehaztuz: herriak, aurreikusitako jarduketak, aurrekontua eta eskaera egin zen eguna.

2. Aurreko galderan adierazitako eskaeretatik zenbat sartu dira 1997 urtean burutu beharreko lanen kanpainian? Zein aurrekontu dauka horietako bakoitzak?

3. Zein egoeratan daude hasitako lanak? Jarduketak horietakoren bat 1998 urteko ekitaldian burutzeko geratu al da?

4. Zein izan da Foru Agindu honetako dirulaguntzetarako utzi den guztizko gastua 1997an eta zenbat dago 1998ko ekitaldirako hitzartuta?

Galderan adierazitako dirulaguntzetarako lehenengo deialdia 1992an egin zen. Urte horretan, ondoko eskaerak aurkeztu ziren:

– Saltos del Ega S.A. enpresak, Ega ibaia Lizarrako dermioan pasatzerakoan, bere jabetzako minizentraleko presan arrain-eskala eraikitzeke, 2.068.851 pezetako aurrekontuarekin. Ez zioten dirulaguntzarik eman, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez zituelako.

– Iزابako Udalak, herrian bertan aurkitzen den bere jabetzako minizentraleko hartune-presetan bi arrain-eskala (bat Belabartze errekan eta bestea Belagoa ibaian) eraikitzeke, 4.534.009 pezetako aurrekontu osoarekin. Ez zioten dirulaguntzarik eman, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez zituelako.

– Energía Hidroeléctrica de Navarra S.A. enpresak, Betolegi, Olaldea I, Irati eta Nabasturengo zentraletako presetan hartuneen egokitzapen-lanak egiteke, 10.571.112 pezetako aurrekontuarekin. 5.285.556 pezetako dirulaguntza eman zioten.

1993an ondoko eskaerak aurkeztu ziren:

– Minicentrales de Araxes, S.A. enpresak, Lizartzako zentraleko presan eskala eraikitzeke. Presa hori, Araxes ibaian aurkitzen da, Atallun (Araitz). Ez zioten eskaera onartu, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez zituelako.

– Rufino Aramendiak, Ega ibaian dagoen Arako errotoaren presan arrain-eskala eraikitzeke, 2.652.316 pezetako aurrekontuarekin. Dirulaguntza eman arren, ez zen eraiki.

– Electra Larraun, S.A. enpresak, bere jabetzako minizentralean arrain-eskala eraikitzeke. Eskala hau, Larraun ibaian, Eseberrin (Larraun) eginen litzateke, 6.612.335 pezetako aurrekontuarekin. 3.306.168 pezetako dirulaguntza eman zioten.

– Fundiciones de Vera, S.A. enpresak, Berako Bidasoa ibaian, bere jabetzako minizentraleko presan emari ekologikoaren isurketa-kontrolerako gailuak jartzeko, 4.281.608 pezetako aurrekontuarekin. 1.878.356 pezetako dirulaguntza eman zioten.

– Iberdrola, S.A. enpresak, ondoren aipatuko ditugun bere jabetzako minizentraletako presetan emari ekologikoaren isurki-kontrolerako gailuak eta arrain-eskalak eraikitzeke: Artesiagako zentra-



la, Artesiaga ibaian, Iruritan, Baztanen; Oronozko zentrala, Bidasoa ibaian, Arraiozen, Baztanen; San Tiburcioko zentrala, Donezteben; Igantziko zentrala, Sunbillan; San Martingo eta Endarlatsako zentralak, Beran; San Faustoko zentrala, Urederra ibaian, Artabia udalerrian. 1993 eta 1994 urteen bitartean egiteko, eta 39.664.869 pezetako aurrekontuarekin. Bi urte hauetan, 18.410.423 pezetako dirulaguntza eman zioten.

– Energía Hidroeléctrica Navarra, S.A. enpresak, ondoren aipatuko ditugun, eta Irati ibaian aurkitzen diren bere jabetzako minizentraletako presetan emari ekologikoaren isurki-kontrolerako gailuak eta arrain-eskalak eraikitzeke: Betolegiko zentrala, Legarza erreko presak eta Irabiako kontrauharka, Orbaizetan; Olaldea I-eko zentrala, Ariben; eta Iratiko zentrala, Orotz-Betelun. Bidasoa ibaian, Nabasturengo zentrala, Igantzin. 1993 eta 1994 urteen bitartean egiteko eta 58.394.128 pezetako aurrekontuarekin. Bi urte hauetan 21.524.103 pezetako dirulaguntza eman zioten.

1994an ondoko eskaerak aurkeztu ziren:

– Berdabío, S.A. enpresak, ondoren aipatuko ditugun bere jabetzako minizentraletako presetan arrain-eskalak eraikitzeke: Berdabio eta Okilegi, Añarbe ibaian, Goizuetan, 8.342.375 eta 5.367.972 pezetako aurrekontuekin. Lehenengoa-ri, 2.453.356 pezetako dirulaguntza eman zioten, eta bigarrenari ez zioten dirulaguntzarik eman deialdiko oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez zituelako.

– Navarra Trout, S.A. enpresak, Ameskoabarrengo Urederra ibaian, Artazako arrain-haztegiko presan arrain-eskala eraikitzeke, 6.653.357 pezetako aurrekontuarekin. 2.892.764 pezetako dirulaguntza eman zioten.

– Etxalarko udalak, bertako hirigunean, Tximista ibaian, kokatutako presan arrain-eskala eraikitzeke, 1.272.015 pezetako aurrekontuarekin.

Emakidaren titularra ez izateagatik, ez zioten dirulaguntzarik eman.

1995ean ondoko eskaerak aurkeztu ziren:

– Pedro Galarreguik, Oharrizen (Baztan), Irurita ibaian, bere jabetzako arrain-haztegiko presan arrain-eskala eraikitzeke, 2.587.790 pezetako aurrekontuarekin. 1.045.000 pezetako dirulaguntza eman zioten.

– Iberdrola, S.A. enpresak, Arantzan, Latsa ibaian, Igantzi II-ko minizentraleko presan arrain-eskala eraikitzeke, 6.528.172 pezetako aurrekontuarekin. 5.319.145 pezetako dirulaguntza eman zioten. Oronozko eta Igantzi I eta II-ko zentraletako presetan izokin arrainkumeak pasatzeko gailuak eraikitzeke 1.442.672 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen, eta 721.336 pezeta eman zioten dirulaguntza gisa.

1996an ondoko eskaerak aurkeztu ziren:

– Irunberriko Udalak, bertatik igarotzen den Irati ibaian dagoen San Antonio irin-fabrika zaharreko presan arrain-eskala eraikitzeke, 4.270.288 pezetako aurrekontuarekin. Emakidaren titularra ez izateagatik, ez zioten dirulaguntzarik eman.

– Hidráulica del Bidasoa, S.A. enpresak, Igantzi herrian, Bidasoa ibaian duen bere jabetzako minizentralean arrain-eskala eraikitzeke, 5.531.350 pezetako aurrekontuarekin. 2.765.675 pezetako dirulaguntza eman zioten. Eraikuntza ez zen egin, Iparraldeko Ur Komisariaren nahitaezko baimenik ez zuelako.

– 1997an, aurreko urteetan bezala deialdia egin arren, ez zen inolako eskaerarik aurkeztu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erreglamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 17an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--